

Noaia!!



Indarrean da
2007ko udal aurrekontua



Ez utzi azken ordurako
Datorren astean, otsailak 17, Inauteri Jaia!

➡ **www.noaia.com** ⬅
usurbildarron zerbitzura

[illegible]

Albisteak iruditan !!

Eraikin bioklimatika egingo dute Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolan eredugarri izan nahi duen eraikin bioklimatika egin nahi dute 2009rako. Lehenengo astelehenean aurkeztu zuten proiektua. Aurkezpen ekitaldian Eusko Jaurlaritzako bi kontseilari izan ziren, Hezkuntzako Tontxu Campos eta Ingurumeneko Esther Larrañaga. Sailburu hauekin batera Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkatea egon zen aurkezpenean.

Usurbilgo Lanbide Eskolak nazioarteko sari eta aipamen ugari jaso izan ditu energia berriztagarrien irakaskuntzan egindako lanagatik. Orain eraikuntza bioklimatiko bat egitekotan dira bertan, alegia, kanpotik energiarik ekarri gabe, bere burua hornitzeko gai

izango den eraikuntza bat egin nahi dute.

250 metro koadroko solairu batean eraikiko dute eta erabilera ugari izango ditu: alde batetik ikasleak jasangarritasunean hezteko balioko du eta, bestetik, arkitektoak eta eraikuntzako beste-lako profesionalek, adibide eredugarri bat edukiko dute bertan.

Urrezko Zigilua

Horretaz gain, Lanbide Eskolak Europako Bikaintasun Urrezko Zigilua jaso berri du, "2005/2006 ikasturteko jardueragatik". Urtarrilaren 25ean egin zen sari banaketa Miramar Jauregian eta Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak hartu zuen parte.



Kudeaketaren kalitate alorrean hainbat eskolek garatutako lana azpimarratzeko ekitaldia izan zen Miramarkoa. Hego Euskal Herriko lanbide heziketak duen goi-maila munduan erreferentzia bilakatu dela azpimarratu zuten. Irudian, Usurbilgo Lanbide Eskolakoak ziurtagiria eskuratzen.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaia.com - www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA! ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

IGANDEAN SUTEGIN, PELLO RAMIREZ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

EZKER ABERTZALEAREN DIAGNOSTIKOA **8. OR.**

2007KO UDAL AURREKONTUAK **10. OR.**

INAUTERI JAIA, DATORREN ASTEAN **12. OR.**

AITZAGARIK GABE URTEBETEZ **14. OR.**

ESKUBALOI TALDEAK, IZERDI PATSETAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala




Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOSE PIÑAS

Errausketarik ezetz!!

Informazioa, iritzia ematea eta partehartzea demokrati erreprezentatibo modelo politiko honen balore direla pentsatuz, herritarrok aukeratzen ditugun ordezkari politikoei eta erakunde publikoei balore horiek gauzatu daitezten tresnak eta mekanismoak ipintzea dagokie.

Baina askotan herritarrok informazioa gabe, iritzia emateko eta partehartzeko gaitasunik gabe ikusten dugu gure burua. Hutsune honen ondorioz modelo demokratiko erreprezentatiboa funtzionatzeko beharrezkoa den herritarren kultura politikoa galtzen ari da, modelo politikoa bera krisian jartzen.

Horixe gertatzen ari zen erraustegia gaiarekin baina gai honek osasun eta ingurugiro aldetik ondorioak dituenagatik, herritarrek informazioa, iritzia eta partehartzeko eskubidea aldarrikatu dezaten lortu du. Azpimarratzekoa da gure ordezkari politikoei bere lan bete ez dutenez, ia Donostialdea eskualdeko herri guztietan errausketaren aurkako herritarren taldeak sortu direla: informatzeko, iritzia emateko eta zabor kudeaketan partehartzeko alternatibak planteatuz. Azken finean, herritarren kultura politikoa berpizteko tresnak eta taldeak bihurtu direnak.

Eta ordezkari politikoei beraiei akatsak eta hutsuneak onartu beharrean, bere lana zein den bete beharrean (herritarren alde lan egitea baina herritarren esana egiten), errausketaren kontra dauden herritarrek eta taldeak kritikatzeko jardun dira. Beraiei esanetan:

1) "Manifestazioetan informatu gabe partehartzeagatik". Nork ukatzen du informazioa eta eztabaia udal plenoetan esate baterako?

2) "Interes partidistak edukitzeagatik". Ez al dituzte ikusi zer motako jende aniztasuna dagoen manifestazioetan? Ideologi politiko guztietakoak, adin guztietakoak, baserritarrak, langileak, ikasleak,...

3) "Interes pertsonalak defendatzeagatik". Oraindik agian denak ez, baina horrela izateko lanean ari gara, erraustegia ez Zubietan ez inon aldarrikatzen dugu. Zergatik Donostiako PSE eta EA Zubietan jartzeko ados daude eta Lasarte eta Usurbilgoak ez? Beraiei herritik gertu ez dutelako nahi? Zuretzako nahi ez duzuna ez iezaiozu opa aldameneko herriari.

4) "Zabor kudeaketa plana kritikatzegatik alternatibak planteatu gabe". Alternatibak mahai gainean ipini ditugu: zabor ekoizpen murrizketa enpresei zigortzen eta ez soilik ardura pertsona indibidualak trasladatzen, berrerrabiltzea (zergatik ezin ditugu dendetan entregatu kristalezko kaxkoak orain dela urte batzuk bezala?), zabor bilketa selektiboa... Zeintzuk dira ordezkari politikoen garapen sistema sostengaezin honen ondorioak gainditzeko alternatibak?

Gai honek herritarren artean sortu duen sentsibilitatea benetako arazoari aurre egiteko aprobeitza dezagun: ezin dugula kontsumismo modelo honetatik jarraitu alegia.

Ordezkari politikoei, zuen ardura politikoa eusteko erronka duzue. Luzerako lana delako gaurtik hasi beharrezkoa, errausketa alternatiba bat ez dela dakizuelako, partxe txarra baizik.

Guk, herritarrok erronka eusteko prest gaude eta horregatik diogu ozenki: errausketarik ezetz!!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ilka-mika

Alderdi-Eder 8h.

Urtarrilaren 30, goizeko 7.58, iluna, bi gradu, plenoa dela eta Donostiako Udalera gerturatu naiz, bertara sartzeko asmoarekin. Aurretik bi kazetari nonbait, beren kamera, tripode eta abarrekin, hauek aurrera, ni atzetik. Bizarra zuritzen hasitako polizia eskua nere gainera: "¿A donde va?" (...), plenoa. "No puede entrar, espere".

Alderdi-Ederreko jardinetan toldo batekin estalitako zerbait, nere artean izotzaren beldurrez tapatutako zuhaitzen bat... Arratsaldean lazo txuri-urdin bat askatuz nere ustezko arbola bixtan, larrosa zuriak ingurukoentzat.

Udaleko erlojuak 8tako kanpaiak jo ditu, nire moduan, han ni bakarrik. Udaleko sarrerako terrazan 30 Udal polizi, bi ertzain furgoneta eta beste bi auto, hauek barruan, kanpoan hotza.

8:06, hasieran sarrera debekatu zidan poliziak beste aldera begiratuz, bere lan-

kidea hurbiltzen zait "puede entrar" esanez. Udaleko sarrerako terraza, atea ireki, beste dozenerdi bat polizi. "El carnet", to, "Periodista" ez. Eskailerak, pleno aretoko atea ireki eta dena martxan, kazetariak lanean, politikoak beren tokitan... Plenoa duela ordubete lehenago hasia zegoela ematen zuen. Beste polizi bat goiko solairuko kortina tartetik behera begira bideokamera eskuan duela, pleno aretoko ixkina guztietan poliziak.

Bi zerbitzari, politikoen beharrak asetzeko, zilar koloreko bandeja hara eta ona, nahiko kafe guztientzat. Bollo bandeja ere etorri zen gero Usandizagak gose greban dagoenari eskaini zizkionak.

9:04, gai zerrendako azken puntua aztertu aurretik, premiazko prozeduraz aztertzei gai berri bat, aurreko egunean bilera eginga; Donostiako Udala, San Markos eta Diputazioa. Lau puntutako txostena prestatua eta Donostiako

Alkateak, Odonek hau onartzeko irrikitan ahal den azkarren eta "pakean". PPko Usandizaga oso haserre, ezkutuan ekartzeagatik horrelako gai garrantzitsua, plenoa astebeite atzeratzeko eskatuz, ezin zelako korrika eta presaka erabakia hartu. PSOEko Letamendia parrez, Usandizaga gero eta beroago. EBkoa han dator korrika (nonbait ohean gripeak jota), idatzia irakurri eta aurkako bota eman, altxa eta martxa. Odonek ezta ahoa ireki. Aldeko botoa emateko garaian EA eta EAJko zinegotzien eskuak gora!

2007KO URTARRILAK 30, GOIZEKO 9:30 ORAINDIK EZ, DONOSTIAKO UDALBATZAK LAU PUNTUTAKO TXOSTENA GEHIENGOZ ONARTUA, ERRAUSTEGIA ZUBITA MENDIN, ARTZABALETAKO ETA OIANGU ARTEKO GAINEAN ERAIKI NAHI DUTE.

I. Salsamendi

Pello Ramirez, igande honetan Sutegin

Euskal Herriko artista ospetsuekin lan egina da. Bakarka bere lehen lana kaleratua du; “Haize Oihalak”. Hiru musika instrumentu ederki baliatzen ditu; akordeoia, biolontxelo eta pianoa. Bera, Pello Ramirez da eta emanaldia eskainiko du Sutegin otsailaren 11n.

Akordeoia jotzen hasi zen; 19 urterekin biolontxelo deskubritu zuen. Pello Ramirezek aipatutako musika tresnak eta pianoa baliatuta hainbat konposizio egin ditu; hamalau bere lehen lanean. Ordiziarrek lehen diskoa kalerratua baitu; “Haize Oihalak” izeneko. Dagoeneko hainbat musika-

ri ezagunekin lan egina da; Benito Lertxundi, Niko Etxart, Mikel Urdangarin... Diotenez, euskal musikan falta ezina den artista dugu Ramirez. Konposatzaile gisa egindako lehen lana datorren otsailaren 11n aurkeztuko du Sutegiko auditorioan, iluntzeko 19:30etatik aurrera.

Usurbilgo Udalak antolatutako ekitaldian, itzalean urte luzez aritu den musikari honen dotoretasunaz gozatzeko aukera izango dugu.

Otsailak 11, igandea

19:30ean Sutegin.

Sarrerak: aldeztu aurretik, 8 euro, kiroldegian salgai. Takilan, 10 euro. Antolatzailea: Usurbilgo Udalak.



Ika-mika !

Errausgailua eta pertzepzioak

Imanol Ubeda. Azkenengo alean Largaratu zenuen zure idatzia irakurri bezain pronto sakeleko telefonora deitu nizun. Errealitate berdinarean aurrean genituen pertzepzioak kontrastatu ahal izan genituen. Eta jarraituko dugu.

Lerro hauek, zure idatzian aitatzen dituzun egun haietako nire bizikizunak esplikatzeko dira.

Urtearen lehen hamabostaldia niretzat oso intentsua izan zen: errausgailuaren kokapenari buruz Donostiako alkateak (Odon Elortza jaunak) hartutako erabakia, udal aurrekontuaren onartze prozesua, etxe babestuen zozketarako oinarrien osaketa, alderdi barruko eztabaida: hauteskundetara ze formularekin joango garen argitzea, hurrengo hauteskundetan alkategai izango naizela erabakitzea eta onar-

tzea, eta beste.

Kontesto horretan nere eskuetara iristen da NOAUA!ren 263. alea. Eta bertan aurkitzen dut zer nolako tratamendu informatiboa ematen zaion egun batzuk lehenago ez-ohiko eran eta urjentziatzeko eran eginiko udal plenoari, non, errausgailua Zubietan Donostiako udalak hartutako erabakia eztabaidatu zen, non, hark izan zuen aparteko izaeraz gain, herritarren partehartze garrantzitsua izan zen.

Aldizkari berean aurkitzen dut Muskilda Tellabide izenpeturik dagoen idatzi bat; irainez eta deskalifikazioz josirik. NOAUA!k berak, idazkiak argitaratzeko dituen irizpideak betetzen ez dituenak.

Beno, guzti hau nire pertzepzio edo ikuspegi hutsa izan liteke, nire apreziazio subjektiboa.

Egun haietako zurrumbiloan, aldizkari harekin topatzean, beroaldia sortu zitzaidan, haserrealdia, eta ezer gutxi jakin nahi nuen NOAUA!taz eta beste komunikabideetaz. “Políticamente incorrecto”?, ados; desegokia?, ados; ofenditua sentitzen denari barkamena eskatu behar dut?, eskatzen dut; desagrabio moduan elkarriketa zor dut?, egingo dugu.

Baina guzti honek ez du aldatzen udal batzar haren tratamendu informatiboari buruz dudan pertzepzioa: ez zitzaiola tratamendu egokia eman. Eta honekin ez dut inor profesionaltasunez akusatzen. Denok ditugu, eta nik maiz, egun txarrak.

Luisuari Ormaetxea,
Usurbilgo alkatea.

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Aldaketa klimatikoaz



Pasa den astean, adituek jakinarazi dute aldaketa klimatikoaren aurrean gaudela eta fenomeno hau atzeraezina dela. Beraien ikerketen arabera, mende honetan lurraren tenperaturak nabarmenki gora egingo du, pare bat gradu gutxienez. Itsasoen uren maila igitzea, lehorte gogorrak, beroaldi luzeak, eurite ugariagoak, zikloiak eta uholdeak eragingo ditu.

Denok egoera larriarekin jabearazteko eta bat egiteko, Frantziako talde batek bost minutuko argi mozketak proposatua zuen pasa den ostegunean. Gure auzoan bakan batek itzali zituen etxeko argi guztiak, baino nagusiki ekimenak ez zuen jarraipen handirik izan. Gure txokoan, beroketa aldaketak maiz ekarriko dituen ondorio larrien artean, beldur gehien sortzen duena uholdeak direlakoan nago. Ibaia ondolan pasatzen zaigu eta erreka berriz, Andatzatik beheruntz kasko erditik igarotzen da. Azken hogeitabost urtetan bitan izan dugu auzoa urez tapatuta, etxetaraino ailegatuz. Batean ibaia atera zen bere bidetik, bestean berriz erreka. Biak oso txarrak izanik, aukeran nahiago ibaiak gainezka egitea, aurreikusten egiten baita eta neurriak hartzea erraztu. Mendiko uholdea ezustekoa izaten da erabat eta beraz oso arriskutsua. Ez ahal da sekula gertatuko!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Inauterien atarian



Azken momentuan beti korrika eta presa-ka gauzen bila!! Ganbaran begiratu horrenbeste traste zertarako edukiko ditut, pentsatuaz hasten dut beti otsaila. Inauteriak atarian ditugu honenbestez astetxo bat baino ez da falta horretarako. Aurten herriko gaia Brasil dugu gainera. Usurbilgo kaleetan Brasilgo doinu eta kolorez jazteko aukera izango dugu. Askok eta askok originaltasunez beteriko jantziak egiten dituzte. Ni lehen ere saiatzen nintzen denbora aurretik hartuta prestatzen baina azken urte hauetan azken momentura arte uzten hasia naiz. Sekulako ilusioa egiten didate niri Inauteriek eta egunen batean gustatuko litzaidake gure herrian kuadrila guztiak parte harturik sekulako festa antolatuko bagenduke! Inoiz ez da izango Tolosako Inauterietan bezala bertakoek urtebete pasatzen baitute karrozak prestatzen eta!

Ba tartetxo hau aprobetxatuaz denoi gonbidatzen zaituztet egun honetan moxorroa ganbaratik atera haizea hartzen jarri eta denok kalera festara joatera. Ia aurten giro goxoa izaten saiatzen garen! Gora Inauteriak! Ondo ondo pasa!

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Zer ginateke urik gabe?

Azken aldian ur falta dagoela hainbestetan entzunda, gogorra egiten zait egungo bizitza iturrietan urik gabe imajinatzea. Baina, egoera hori gure guraso edo aiton-amonek bizitu dute; ez urik ez zegoelako zehazki baina, bai ura nahi ezkerro bila joan egin behar izaten zutelako.



Osorik dira oraindik ere gure baserri inguruan garai batean arrikoa egin eta etxerako ura hartzeko inguruko baserritarrek erabiltzen zituzten erreka ondoko aska eta labaderoa. Leku kurioa dela iruditzen zait ziur bainago asko eta askorentzat topaleku ere izaten zela. Zortedunak gu errealitate eta bizipen horien berri hain gertutik jakin dugulako eta positiboa dela deritzot ondorengoei ere transmititzea. Are gehiago, antzerako txoko ugari oraindik mantentzen direla ikusirik, eta ziur herrian asko direla. Ez legoke gaizki txoko hauek txukundu, atondu eta txikienei ezagutzea emango bagenizkieke. Azken batean beraien historiaren parte ere badira!

Indio hark zioen: "Lurra ez da gure arbasoen herentzia bat baizik eta gure seme-alaben mailegua". Aintzat hartzeko esamoldea! Aio eta ondo izan.

ATXEGALDE

JONE EIZMENDI

Farolak eta paolak

Gure auzo honetan farolak fundituta daudela konturatuko zintaten bat baino gehiago. Errepide ondoan farola haundi bat dago bikoitza dena eta biak argirik gabe, autobus geltokitik beheko eskailera parean, hain zuzen.



Orain neguan gaudenez iluna egoten da. Gainera, txoko horretan ur isuria egoten da gehienetan. Ea laister txukunduta ikusten dugun, auzotarrok eskertuko genuke.

Beste gai batera aldatuz, eta farolei buruz ari garenegun, egun aproposak izan ditugu paola eskuan hartu eta Santa Agedatako koplak kantatuz kalez kale ibiltzeko bertsolari, trikitalari eta abar, umore onean ohi-tura zaharrari jarraituz.

Umorea beharrezkoa dugu mundu xelebre honi aurre egiteko. Bestela ere nahiko albiste txar badugu aspaldian errausketa dela-eta. Aurrerantzean ere borrokan jarraitu beharko, herritar gehienok prest gaudelako beste aukera batzuk erabiltzeko.

ALEX TELLO

Gutun hura



Zuengana hurbildu nahi nuke pen-
tsatzen dudana adierazteko, oster-
a une aproposa ez ziurtatzen dakit. Iaz
otsailaren hamalauan gutuna idatzi
nizun, baina soilik ordenagailuz idatziri-
koa irakurtzen dakizu. Pertsona konple-
xuak bizitza modu errazean baino, zailean egiten
daki. Zu eta zure gisakoak nonahi, alderdi guztietan
badira... (leku guztietan egon naizelako diot) alabai-
na gauzak aurpegira inon ez esaten dakigu. Kostata
egiten duzue kasu kalean elkar ikusten garenean, disi-
muluaren arteaz zer dakizue? Elkarren artean zintzo-
ak, zuzenak eta argiak direnak, enbarazuen soluzioa
modu egokian erdiesten dakite.

Hitz joko jakina da eta adibidez, honakoa dio: ‘Pentsatzen dudana adierazteko gutuna idatzi nizun baino, gauzak aurpegira kalean elkar ikusten garenean eta modu egokian’.

Bizitzan jakinak zein ezjakinak egin ez izanagatik lerro hauek idatzi ditut. Nahigabea edonor, denak izan gaitezke jakintsu ere. “Zernahi da edozer eta nornahi koka dezakegu jakintasuna eta ezjakintasunean aldi berean” esan ohi dit Usurbilgo lagun batek.

URDAIAGA

SARA LAZKANO

Epeletik hotzera



Urte berria gau epel batean iritsi bazitzaigun ere, hotzak hartu ditu urteko lehen egunak. Aukera izan dugu aste hauetan gure auzoa zuri jantzirik ikusteko, kristalaren atzean babesturik hotzari erronka botatzeko eta urte osoa armairuaren atzealdean ezkutaturik zerman berokia ateratzeko. Baina otsailarekin batera hotzari aurre egiteko aukerak ere iristen zaizkigu.

Batetik, hasi da jada herriko jendea lanean, bateko moztarro, besteko pintura, Inauterietarako prestaketetan. Aurtengoan badirudi, gure Inauteri egun hotzari, sanba erritmoan, epeltasun pixka bat ematea dela asmoa.

Eta garai honetako gau hotzen beste sendagaia sagardotegiak dira, eta trago eta trago artean alaituriko gauak.

Baina egunero Inauteriak ez diren bitartean, berokiaren azpian ezkutaturik, edota etxeko kalefazioaren babes goxotik kaleko hotzari begiratzea besterik ez zaigu geratzen. Eskerrak, gure tontor honetan leihotik zehar ikusteko txoko eta paraje ederrik ez zaigun falta.

AGINAGA

LONTZO ZUBIRIA

Txotx! elkartasunagatik



Txotxeko garaian, gustora biltzen gara Urdairan inguruko lagunekin eta baita urrutitik inguratzen zaizkigun lagunekin ere. Horieta batzuk dira urtero batean edo bestean “Elkartasun Eguna” dela eta aurkitzen ditugun adiskideak, Zuberoako Urdiñarbeko “Bil-Txoko” elkartearen juntatzen direnak.

Zuberotarrekin, badakizue... berandu etorri eta gero etxera itzultzeko presarik batere ez... Ardiak jeizteko garairako inguratzan omen dira nor bere etxera, hori diote beraiek. Han zain dagoenaren purruxta entzun ondoren oheratuko direla iruditzen zaigu guri...

Aurtengo lehenbiziko juntadizoa antolatuta daukagu martxoaren 10erako: gure aldetik, Aginaga eta Usurbilgo lagun taldea joango gara, eta beste aldetik Nafarroako Tuterako “Beterri” elkarteak etorriko dira. Berekin ekarriko dituzte Tuterako Gaitero famatuak. San Ferminetako “Riau-Riau” ospetsua, jota ezagunak eta ez hain ezagunak... denetik entzun eta kantatzeko aukera izango dugu tuteratarrekin batean.

Aurrerago –oraindik eguna finkatu gabe daukagu- Arabako Añana bailarako lagunekin ere elkartzeko asmoa dugu. Aldez aurretik eskertzen diegu Patxiri eta sagardotegiko beste langileei gurekin hartzen duten pazientzia.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

Su bieta



Bost minutuko argirik eza erabili zuen Donostiako udalak, gas isurketa neurritz kanpokoaren aurrean konpromisoa erakusteko, otsailaren 1eko deialdiarekin bat eginez.

Bi egun lehenago, goizean goiz eta ilun bistan, erraustegia Zubietan kokatzea onartu zuen udal berak. Ilunpetan eta ezkutuan.

Argirik eza, batean, elkartasuna eta konpromisoa erakusteko. Bestean, herritarroi bizkar emanda juxtu kontrakoa egiteko: gas isurketa neurritz gain areagotzeko. Hipokrita nazkagarriak!

Sutan jarri naute askotan. Zergatik ez digute beste alternatibak probatzen uzten? Luisuari Ormaetxeak, manifestara joaten diren "herriar gizajo" horiek ez bezala, irakurriko zituen, noski, hainbat adituren iritzia eta txostenak. Irakurriko zuen, seguru asko, Frantziako osasun-ministerioaren menpeko InVS erakundeak argitaratu berri duen txostena. Eta, ez ote zaio zalantza txikiren bat ere piztu? Lasai egiten ote dute lo Usurbilgo PNVko eta EAKoek halako arrisku (berdin zait zalantzazkoa izanda ere) baten aurrean zer egiten ari diren ikusita?

Umiliatua sentitzen naiz. Amorratuta eta beldurtuta nago. Gure eta gure ondorengoen osasuna baitago jokoan, momentuko beroalditik gutxi du honek. Hau serioagoa da. Herritarron suak itzaliko du agintarien errausteko grina. Herritarron zentzuak eragotziko du burugabekeria hau.

Udal hauteskundeei begira

Herri diagnostikoa osatu du Usurbilgo Ezker Abertzaleak

Maiatzean izango diren hauteskundeei begira, Ezker Abertzalea herri programa lantzen hasia da. Herrian egin den lanaren berri emateko, 2006ko irailaz geroztik herriko diagnostikoa egiten aritu dira. Horren berri eman zuten aurreko larunbatean udaletxe aurrean egin zuten prentsaurrekoan. Ezker Abertzaleak egin duen diagnostikoa era laburtuan jaso dugu orriotan.

Demografia

Biztanleriaren ezaugarriak: 5.745 biztanle ditu, orekatua, 25-39 urte artekoak gehienbat, %3 langabetuak, gehienak Elizalden bizi dira, erdiak Usurbilen jaioetakoak, herritarren %60-k herritik kanpo jaioetako gurasoak ditu.

HERRI PROGRAMAZ

“Ezker Abertzaleak hilabeteotan egin duen diagnostikoa izango da herri programaren oinarria”

Hirigintza

Arau subsidiarioak: bi urte pasa arren, Testu Bategina oraindik onartu gabe dago. Horren aitzakiatan, arauetako hainbat zehaztasun aldatu nahi dira; lur sailak birkalifikatzea... Ezker Abertzaleak Olarriondon 406 etxebizitzaz egitea aurreikusi zuen; horietatik 240 babes ofizialekoak (EA-k baino babes ofizialeko 72 gehiago).

Egungo egoera: herri izaera jokoan dago. Arau subsidiarioen garapenak sekulako abiada hartu du. Arauak 8-10 urteetan gauzatzeko prestatu baziren,



HERRIAN ARLO EZBERDINETAN LANEAN ARI DIRENEKIN BATERA OSATU DU EZKER ABERTZALEAK HERRI DIAGNOSTIKOA.

ere, martxa honetan berehala agortuko da jokoan jarritako lurzoru guztia. Eraikitzen ari diren etxebizitzak, emandako baimenak eta sustatutako egitasmoak kontuan izanik, lauzpabost urteetan milatik gora etxebizitza berri eraikiko dira herrian; gehienak %66,06 pribatuak, %15,37 udalak tasatutakoak, %15,37 babes ofizialekoak, %3,2 babes sozialak. Oraingo udal taldeak salmenta libreko etxebizitzak bultzatzen ditu batez ere, nahiz eta Luis Mari Ormaetxea kontrakoa esaten saiatu bada ere. Salatzekoa da ere Lurzoruaren Legea saihesteko eginitako azpijokoa. Lurzoruaren Legea irailaren 20an onartu zen, eta legearen xedapenak saihesteko, udal gobernua presaka ibili zen gutxieneko erabakiak irailaren 20a baino lehen hartzeko eta etxebizitza babestuak ez egiteko. 223 etxebizitza libre sustatu zituzten astebeteko epean. Bestelako gogoetak: herriaren hazkunde desorekatua da eta eraikitzaileen esku dago, eskuratu-tako udal jabetzako lurrak saltzen,

2002an 353 etxe huts, planifikazio orokor baten falta.

Lokal komertzialei egoitzazko erabilerara emateko ordenantza: espekulazioari ateak ixteko ordenantza aldatzea komenigarria ikusten da.

Lurzoru industrial: Elor industrialdea eginda, industriarako lur gehiagorik ez dagoela asumitzen da.

Azpiegiturak: N-634-ko puntu gatazkatsuak bere horretan.

Nekazaritza, ingurumena

Lehen sektorea: Onurak: Gipuzkoako erribera zabal eta onenak Usurbilen daude, baserri asko, baserriko seme-alabak baserriko lanetara hurbiltzen dira, Alkartasuna Kooperatibaren indarra nabarmentzen da, azokek harrera ona. Arazoak: 7-8 ustiategi bakarrik, baserriar txikiek ia laguntzarik ez, bertako produktuen aldeko apustu garbirik ez.

Ingurumena: Natur gune garrantzitsuak: Irisasi Andatza mendia, Oria ibaiertzeko Hezeguneak babes izenda-

pena du baina kudeaketarik ez, Zubietako Mendi.

Kutsadura: errauste planta, industria jarduerak ez dira ondo ezagutzen, hala nola, Ingurumenean Eragin Nagusia izateagatik legedi berezia dagokien sei enpresak.

Beste gai batzuk: energia berriztagarrien aldeko apustua Zubietako Lanbide Eskolan, garraiobide aukera eta erabilera ez zabala, ibilbideak berreskuratu beharra.

Jasangarritasuna eta agenda 21: herritarren parte hartze falta.

Ongizatea

Larrialdietarako bi etxe, errenta apaleko alokairuko sei etxebizitza, 12 etxebizitza sozial, indarkeria jasandako emakumeentzat aholkularitza zerbitzuak, 1.900 adineko inguru, etxez etxeko zerbitzuaren onuragarriak 15 adineko, 418 ezindu, 200 etorkin integratzeko plan berezirik ez, bi Gizarte Laguntzaile.

Hezkuntza

Aurrekariak: Ageri Alde Udarregi ikastolaren eta Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastegia da.

Udarregi Ikastola: txiki geratu da jaiotze-tasaren igoeraren ondorioz; 1999-2000 ikasturtean 451; 2006-07 ikasturtean, 578.

Hausnarketaren beharra: Hezkuntza eskaintzaren eta ikastolaren titularitatearen inguruan: hezkuntza mahaia osatzea Udala eta eragileekin. Herriko beste eskolen berri handirik ez.

Euskara

Ezagutza: %73 euskalduna, %27 euskaraz ongi hitz egiteko gai ez, erdaldunen kopurua murriztu da, Olarriondon eta Santuenean euskaldunen ehunekoa nabarmen baxuagoa.

Erabilpena: altua, gutxien lantokian eta lagunartean erabiltzen da, adinean behera egin ahala erdararen erabilerak gora.

Udala eta euskara: apartheidaren ondorioz, udal funtzionamenduan

atzera pausoak, Udalak 20 urteetan euskararen normalizazioaren alde egindako lana azpimarratzekoa, UEMAn sartuz geroztik udalaren funtzionamendua ia erabat euskaraz, azken hiru urteetan hiru zinegotziek ez dakite euskaraz, Aholku Batzorderik ez dago, Euskal Txokoen ordezkari ekimenik ez, normalizazio plangintza ezerezean, saltokien euskararen egoeraren jarraipenik ez, AEK-n 41 ikasle.

Kultura

Udala eta taldeen arteko harremana: Soziokultura Sail edo Batzordeak saia-kera egin arren, Udalak harreman hotza taldeekin.

Azpiegiturak eta horien funtzionamendua: Sutegin liburutegiak bere arduraduna, baina kultur etxerako teknikari baten beharra, erakusketa gelak erabilera murriztu, erabilera anitzeko gelen falta, ludotekaren beharra, liburutegiko ordutegia zabaldu beharra.

Baliabideak eta diru laguntzak: hitzartuak edo deialdi bidez, AEK, Zumarte musika eskolak eta Noaua! Kultur Elkartek hitzarmen bidez akordioa sinatua, horiek urteko balantzaren %100 justifikatu beharra, Udalaren urteko balorazio falta.

Herriko kultur politika: egitasmo eta plangintza falta, diru laguntzak burokratikoki banatzeaz gain bestelako ekimenik ez. Kultur etxearen eskaintza enpresa pribatu batek egiten du.

Egiten diren ekimenak eta ikusten diren hutsuneak: eskaintza badago, baina jendearen inplikazio falta, hutsune handia gazteei zuzendutako ekitaldietan, Udal Fototeka abian jarri gabe.

Gaztedia

Alde positiboak: hainbat ekarpen herriari (Gazte Asanblada, Gazte Ekimena, Eragin...), herri sentipena duten asko, gehienak euskaldunak, kirolari asko, lana lortzeko erraztasuna inguruetan, ikasketetarako aukera

zabala.

Arazoak: komunikazio falta gazteen artean, kultura urrun, ostiral gauetan garraio zerbitzurik ez.

Arazo larriak: etxebizitza erosteko ezintasuna, lan baldintzak geroz eta prekarioagoak, drogen arazoa handitzen.

Kirola

Kirola dinamizatzeko ahalegina egiten da, instalazioen behar bezalakoa aprobetxamendu falta, kirol federatuaren eskaintza zabaltzeko ahaleginik ez, kirol taldeak aurrera ateratzeko geroz eta jende gutxiago prest, eskola kirolak aurrerapauso handienak, kirol azpiegiturak deszentralizatuak, emakumeek bakarkako kirolean aritzeko joera omen dutenez kirol horiek jorratu beharra.

Ogasuna

Aurrekontuak asko igo dira baina superabita berdintsua, aurrekontuen aurreikuspen betetze maila kaxkarra, aurrekontuetarako operazio urbanistikoak eta udal-ondarea saldu izana.

Lurraren udal-ondarea: lurrik ia ez du erosi baina asko saldu; lur eta eraikinen erosketa gastuak 100.000 eurotik 57.500 eurotara murriztu dira.

Zinegotzien gastuak: 2000-03: 98.500 euro inguru; 2004-06: 165.000 euro inguru (+%68). Udal taldeei emandakoa urteko (gastu berria): EA eta EAJ 9.000 euro bakoitzak; PSOE 5.400 euro; PP 4.200 euro. Soldatak: EA-k hiru liberatu denbora erdira. EAJ-k liberatu erdi bat baina %12,5 gehiago izan dute. Lehen, HB-k 1 eta %33 zituen. Plenoetara asistentzia: 80 euro (lehen 30 euro). Batzordeetara asistentzia: 50 euro (lehen 30 euro).

Hauxe da Usurbilgo Ezker Abertzaleak egin duen diagnostikoa, aurreko larunbatean jendaurrean aurkeztu zuena (diagnostikoa ere herriko auzoak landu dira). Aurrerantzean, gaitzaren alderdien analisiak ere biltzen joango gara NOAUA! astekarian.

Indarrean da 2007ko udal aurrekontua

Otsailaren 2an onartu zen 2007ko udal aurrekontua. Ez-ohiko udalbatza plenoan, aurrera atera zen EAK eta EAJ/PNV alderdiek egindako proposamena. 9,8 milioi eurokoa izango da aurtengo aurrekontua. Inbertsioetan, Artzabal izango da aurtengo proiektu nagusia. Gure Pakea zahar-etxearen egoitzan bilakatuko da laster batean. Lanak orain hasi eta 15 hilabeteko epean amaituko dira. Aurrekontua milioi bat eurokoa izango da eta udala izango da sustatzaile nagusia.

Artzabal baserria Gure Pakearen egoitza izango da 2008an. Udalak milioi bat euroko inbertsioa egingo du. Hala jasota geratu da 2007ko udal aurrekontuan. Hau izango da udalak aurrean egingo duen inbertsio nagusia. Baina ez bakararra. Badira kontuan hartzeko beste inbertsio batzuk ere.

2007KO AURREKONTUA

“Udal aurrekontua, aurrean, 9.793.774 eurokoa izango da”

Hasieran aipatu dugun bezala, otsailaren 2an onartu zen udal aurrekontua. Luismari Ormaetxea alkatearen esanetan, aurrekontu berria egokia, inbertitzailea, solidarioa eta kontrolatua da. Hala dio aurrekontu bateratua-ren memorian.

Egokia da, “sarrera guztiak, banan-ban zaindu eta mihatu ondoren ahalik eta erarik egokienean gastatzea



15 HILABETEKO EPEAN GURE PAKEAREN EGOITZA BERRIAN BILAKATUKO DA ARTZABAL BASERRIA.

planteatzen da, gastu korrontea ahal den neurrian mugatuz eta inbertitzeko ahalegin berezia egiten jarraituz”, hala dio alkateak aurrekontu hauek defendatzerakoan.

Inbertitzailea ere bada 2007ko aurrekontua, Luismari Ormaetxearen ustez, “inbertsio zuzenen bidez eta kapital transferentzien bidez 1,640 milioi erabiliko dira. Azken urteetako ahalegin handiari eutsiz, nahiz apalagoa izan”.

Elkartasun kutsua ere baduela dio alkateak, bere esanetan “gure gizartearen beharrezko daudenekiko gertutasuna eta sentsibilitatea erakusten da”. Hainbat programa sozial finantzatzeko dira eta etxer etxeko zerbitzua hobetu eta enplegu programari eraso sendoa eutsi nahi zaio. Gainera, udal aurrekontuaren %1a beste lurraldeetako garapena areagotzeko bideratuko da.

Azkenik, aurrean inolako zorpetze

berrik ez dela planteatu dio Luismari Ormaetxea alkateak. Aurrekontuen memorian aipatzen duenez, “gastu korrontea zuzenki kontrolatzen jarraitu behar dugu eta zorpetze maila ere kontrolaturik dugu”. Udalaren zor bizia bere aurrekontua baino askoz txikiagoa izango da, urte amaieran aurrekontuaren herenera ez da iritsiko zor guztia.

PSE-EE eta PP, aurka

EAK eta EAJ-PNVk osatzen dute udal gobernua eta bi alderdien oniritziarekin aurrera atera da udal aurrekontua. PSE-EE eta PP alderdietako ordezkariak, ordea, kontrako botoa eman zuten ez-ohiko udalbatza plenoan. Datorren alean bilduko ditugu udalbatzako taldeen nahiz UHLren iritziak.

IMANOL UBEDA

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Inbertsio handiena, Artzabalen

Gure Pakea zahar-etxearen egoitza izango da Artzabal baserria. Gaur egun agintean den udal gobernuaren apustu handiena izango da. Udalak milioi bat euroko inbertsioa egingo du. Baina badira bestelako inbertsioak ere.

2005ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Kultura Ondarearen zerrenda orokorrean sartu zuen Artzabal baserria, monumentu izendapenarekin. Horregatik, eraberritze-lanak egiterakoan, baserriaren egitura dagoen moduan errespetatu beharko da. Gauzak ondo bidean, berritze-lanak 15 hilabete barru amaituko dira. Sustatzaile lanetan udala arituko da.

2007rako aurreikusi diren inbertsio nagusienak

Artzabal baserria eraberritzea	1.000.000 euro
Zubietako inbertsioetarako	100.000 euro
Kiroldegia eraberritzea (obrak eta ekipamendua)	75.000 euro
Udaletxearen eraberritzea (obra, ekipamendua)	70.000 euro
Hastapen tailerrak (ekipamendu gastuak: Atalluko tailer berriak)	55.000 euro
Futbol zelaia (obra eta ekipamendua)	30.000 euro
Agenda 21, ekintza planaren garapena	30.000 euro
Udalaren web orrialdea	12.000 euro
Udaltzaingoarentzat motor baten erosketa	6.000 euro

** Datu hauek 2007ko udal aurrekontu proposamenaren txostenetik hartuta daude.*



Kiroldegiko berrikuntzetarako, 75.000 euro. Futbol taldeak aspaldi ari dira Harane zelai berrian jokatzeko. Hala ere, lan denak ez dira amaitu oraindik. 2007ko udal aurrekontuan 30.000 euroko inbertsioa aurreikusi da futbol zelaiako obra zein ekipamendu gastuetarako. Oiaro kiroldegiko berrikuntzetarako, beste 75.000 euro.



Zubietako inbertsioetarako, 100.000 euro. Udal aurrekontu berriaren memorian aipatzen denez, “2007ko ekitaldi honetan kapital transferentzia batzuk ere aurreikusten dira, nagusienak, Zubietako inbertsioetarako (100.000), kiroldegiko berrikuntzetarako (75.000) eta Hegoaldeko herrien garapenarentzat (85.972)”.

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K / Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

MIKEL
IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

txirriStra
KONTZEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak

TABERNA

Aurtengo Inauteriak, Brasilgoen erritmora

Kantabriako Silió herrian urteko lehen igandean ospatu ohi dira inauteriak, La Vijanera izeneko festa ikusgarriarekin gainera, eta beraz haiek bota dute dagoeneko suziria. Euskal Herrian, ordea, goiztiarrenak, Nafarroakoak. Utzin eta Eratsunen, urtarrilaren 13an eta 14an ospatu ziren Inauteriak. Lapurdin ere, asteburu honetan hasi ziren etxex etxeko eskean eta puska-biltzean. Baina Euskal Herriko txoko gehienetan, egun seinalatuenatsailaren 17koa izango da. Baita Usurbilen ere. Antolaketa batzordeak, aurren, Brasil gaia proposatu du. Joko asko eman dezake, beraz, aitzakiariak ez da aurren. Denok moztorro bila, oraindik astebe-

te geratzen da eta. Leitzan ere goiztiarrak izaten dira Inauteriak, urtarrilaren hirugarren igandean, eta ondorengo astelehen eta asteartez ospatzen dira Inauteriak bertan. Eta Iturenen eta Zubietan berriz urtarriko azken igandearen ondoko astelehen eta asteartean izan ohi dira.

Inauterietako data nagusiak otsailaren 15ean, Ostegun Gizen. Otsailaren



DUELA URTE BATZUK ATERATAKO IRUDIA, AURTENGOKAN, BRASILDAR MOZORROEK ORDEZKATUKO DUTE.

16an, Ostiral Mehe; otsailaren 17an, Zaldunita bezpera; otsailaren 18an, Zaldunita; otsailaren 19an, Astelenita eta otsailaren 20an, Asteartita.

BTK arratsalde, BTK gauez

Egun horietan pilatzen dira inauteri ospakizun gehienak, baina horien aurretik eta ondoren ere izaten dira inauteri festak Euskal Herrian. Usurbilen, otsailaren 17koa izango da

egun seinalatua.

BTK taldeak jarriko du giroa, perkusio talde hauek inspirazio iturri brasildar doinuak baitituzte. Goiz partean, haurrak izango dira protagonistak. Arratsaldean, koadrilak eta BTKren kalejira. Eta gauez, sagardotegian bapo afaldu eta gero, BTKren erritmora parranda. Ez da plan txarra, ezta?

IMANOL UBEDA

Otsailak 17, larunbata, Inauteri Jaia

Goizean, haurrak nagusi

11:00etan, pilotalekuan, jokoak eta tailerrak. Haurrentzak maskara tailerra, jolasak... Gaztetxoentzat, oka joko erraldoia. Sorpresak moztortuta joaten direnentzat. Bukaeran, sorpresa goxoa hurbiltzen diren haur eta gaztetxo guztientzat.

Arratsaldean, kalejira

18:30ean, koadrila guztien elkartzea eta kalejira herrian barrena. BTK perkusio taldearen saioa.

Gauez, parranda

21:30etan, afaria Saizar sagardotegian. Txartelak Irratin, Bentan eta Ardi Beltz garagardotegian salgai. Prezioa, 26,5 euro. Txartela erosteko azken eguna, otsailak 15 osteguna.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Udarregi ikastolan, bezperan hasiko da Inauteri Jaia

Informazioa zabaldu nahian, hona hemen Usurbilgo Udarregi Ikastolatik igorri diguten egitaraua. LHkoak goizeko 10:00etan aterako dira kalejiran. Eguerdiko 11:30ean, kiroldegian ohiko ikuskizuna eskainiko dute. DBHkoak ere hartuko dute parte kiroldegiko saioan. Arratsalde, DBHko ikasleen jaia eta diskoteka. Otsailaren 16ko festa mundiala izango da.

Goizeko 10:00etan kalejira

Goizeko 10:00etan, LHko ikasleak aterako dira kalejiran. 1,2 eta 3. mailako ikasleak alde batetik, 4,5 eta 6. mailako ikasleak bestetik. Herrian zehar egingo duten kalejiran auto baten atzetik ibiliko dira, eta gune zehatzetan dantzak erakusteko geldiuneak egingo dituzte, 11:25ak arte. Kalezarren eta kaxkoan ibiliko dira.

OTSAILAK 16 OSTIRALA

“Goizeko 10:00etan hasiko da kalejira eta 11:30ean kiroldegiko ikuskizuna”

Hauk izango dira ibilbideak:

LH 1, 2, 3 mailakoak: Agerialdeko ikastolatik Estraperlo kalera, Muna Lurra kalea, Puntapaxetik Errekatox kalera, Zubiaurrenea kalea, pilotalekua, Kontseju Zaharra kalea, Alperroburu kaletik Kiroldegira.

LH 4, 5, 6 mailakoak: Ikastolatik pilotaleku aldera, Irazu kaletik Kale



INAUTERI JAIA OTSAILAREN 17AN IZANGO DA BAINA UDARREGI IKASTOLAN BEZPERAN HASIKO DIRA OSPAKIZUNAK.

Nagusira, errotonda, Belmonte kalea, Kalezar plaza, Puntapax kaletik berriz errotondara eta handik kiroldegira.

11:30ean ikuskizuna

Oiardo kiroldegian

Kalejira eta gero, 11:30ean, Oiardo kiroldegian, HH, LH eta DBHko ikasleek ekitaldi bikaina eskainiko dute (eguraldi txarra egingo balu, zuzenean kiroldegira joango lirake).

Haur Hezkuntzako haurrak ikastolatik 11:15ean irtengo dira kiroldegiruntz. Hauk zuzenean sartuko dira bertara.

Oharra: Kalejiran, herriko hainbat tokitan geldiuneak egingo dituzte. Dantza egitea tokatzen zaion LHko talde bakoitzak bere dantza egingo du



eta ondoren bere ibilbidea jarraituko du autoaren atzetik. 11:25ean kiroldegiko sarreran egongo dira DBH eta LHko ikasleak. Eta ondoren, handitik txikira, eta ez, txikitik handira, mailaka, kiroldegira sartuko dira “Martxa” dantzatzuz.

Arratsalde dantzaldia

Arratsaldeko 14:30etik 19:00ak arte, DBHko ikasleen jaialdia ospatuko da. Era guztietako emanaldiak prestatu dituzte ikasleek: antzerkiak, kantak, dantzak...

Jaialdi hau bukatzean “diskoteka” gisako dantzaldia izango dute ikasleek. Ikastolako erdiko aretoan egingo da DBHkoen arratsaldeko jaialdia.

IMANOL UBEDA

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Urtebetez, Aitzagarik gabe

Elkartearen itxiera salatzeako manifestazioa egingo da igandean

Otsailaren 11n, urtebete egingo du Aitzaga elkarteak itxita. Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilak itxi egin zituen Aitzaga taberna eta elkarte. Honen aurrean, Aitzaga elkarteak manifestazioa antolatu du igande honetarako. Eguerdiko 13:00ean abiatuko da manifestazioa frontoiaren atzetik.

Duela hamahiru urte zabaldu ziren Aitzaga elkartearen ateak. Egitasmoa aspalditik zetorren baina ahaleginak elkarte itxura hartu zuen 1994an. Abertzale eta ezkertiarren bilgune izateko osatu zen Aitzaga elkarte. Hasiera-hasieratik gizonetzkoiei zein emakumezkoiei irekia, aukera berdintasuna lehen egunetik bermatu zen. Iaz itxi egin zuten baina tirabirak duela bost urte hasi ziren. 2002an, Audientzia Nazionalak Aitzagaren diru kontuak blokeatzeko erabakia hartu zuen. Neurri honek Euskal Herriko beste hainbat elkarteri ere eragin zien. Hala ere, Aitzagak lehen-go martxan jarraitu zuen lanean, iaz itxeko agindua eman zuten arte.

Urte hauetan guztietan, Aitzaga



AITZAGA ELKARTEAK 120 BAZKIDE DITU.

elkarte gastronomiko izateaz gain, kultur eta kirol askoren aterpe izan da: pilota txapelketak, azokak (azarokoak, adibidez)...

Egoitza itxita, elkarte lanean

Herriko ekitaldietan, jaietan eta beste elkarteekin antolatutako hainbat ekintzetan ere partaide izan da urteotan Aitzaga. Ez hori bakarrik, beste talde batzuen jardueren azpiegitura izan da elkarte: Erle Eguna,

Sagardo Eguna, Ikastolaren Eguna, Gazte Asanbladen Topaketak, Gazte Mugimenduaren udako ikastaroak...

Egoitza itxi bazuten ere, Aitzagak lanean jarraitu du. Aurreko irailean, esate baterako, 36ko gerran borrokatu zutenen aldeko kultur astea antolatu zuen Aitzagak.

Aitzaga berriz irekitzeko eskatuz, manifestazioa egingo da igande honetan, hilak 11, eguerdiko 13:00ean hasita.

Ikastaro ugari KzGunean

KzGunea, otsailaren, goizez zabalik izango da. Astelehenetik ostiralerara, 9:00etatik 13:00era. Hainbat ikastaro, mintegi eta azterketa egingo dira hila-bete honetan.

KzGunea ikastaroak

Iraupena: 20 ordu

Lanbide Hastapena (ile-apaintzaileak)

Otsailak 12 / otsailak 16 (9:00-11:00)

Lanbide Hastapena (sukaldariak)

Otsailak 26 / martxoak 2 (9:00-11:00)

IT Txartela

Ziurtagiria eskuratzeko azterketak

Otsailak 16 ostirala (11:00 -13:00)

Otsailak 19 astelehena: 9:00 -11:00

Otsailak 27 asteartea: 9:00 -11:00

Mintegiak

“Sinadura elektronikoa”

Otsailak 22, osteguna / 9:00-10:00

“Zure seme-alaba babestu” (gaztelaraz)

Otsailak 22, osteguna (10:00-11:00)

“Trudi digitalen tratamendua” (gaztelaraz)

Otsailak 20 / otsailak 23

Asteartetik ostiralera (11:00-13:00)

“Euskara ziberespazioan”

Martxoak 2, ostirala (9:00-11:00)

KzGunea: 943 361412 / www.kzgunea.net

Larunbatean,

bertso-afaria Araetan

Zubietako Araeta sagardotegian Zubieta Lantzen plataformak errausketaren aurkako bertso afaria antolatu du. Otsailaren 10ean izango da, larunbatarekin, gaueko 21:00etatik aurrera. Amets Arzallus eta Jexux Mari Irazu izango dira afarian parte hartuko duten bertsolariak.

Txartelak salgai izango dira Zubietako Araetan zein Barazarren, Usurbilgo Txiribogan zein Bentan eta Lasarte-Oriako Jalgin.

Bi eskubaloi partida Oiardo kiroldegian

Asteburu honetan bi eskubaloi partida ikusteko aukera izango da Oiardo kiroldegian. Denboraldi bikaina egiten ari den kadete mailako nesken taldeak Arrate-Amaña Eibarko taldearen aurka jokatu du eta jubenil mailako mutilen taldeak, berriz, Zumarragako Urola izango du aurrez aurre. Eskubaloi zaleek, beraz, kirol honetaz gozatzeko aukera izango dute beste behin ere herriko kiroldegian.

Kadete mailako nesken taldeak Udaberri torneoko lehen itzuliko azken jardunaldia jokatu du. Hilabete pasa da txapelketa hau hasi zutenetik eta herriko neskek jokatu dituzten neurketa guztiak irabazi dituzte. Lau partida horietan ez dute areriorik izan eta nagusitasun osoz lehen postuan kokatuta daude beraien multzoan. Pasa den asteburuan, adibidez, Grosekoren aurka jokatu zuten Donostian eta 11-26 irabazi zuten Nerea Agudok eta Patxi Olasagastik zuzendutako neskek.

Asteburu honetan Arrate-Amaña taldea izango dute aurrez aurre Oiardo kiroldegian. Eibartarrak 3. postuan kokatuta daude, baina usurbildarrek baino 4 puntu gutxiago dituzte. Honela bada, eta Usurbil Kirol Elkarteko nesken orain arteko ibilbidea ikusita, beste garaipen bat eskuratzeko aukera izan dezakete kadete mailako neskek. Denboraldi hasieratik maila ona eskaini du talde honek. Gipuzkoako txapelketa azken fasea jokatzeko txartela lortu



KADETE ETA JUBENIL MAILAKO ESKUBALOI JOKALARIEK ETXEAN HARTUKO DITUZTE AURKARIAK.

zuten lehendabizi eta azken lehiaketa honetan 3. postua eskuratzeko gai izan ziren Cocina Aiala Zarautz A eta Verkol-Aloña taldeen atzetik.

Horrez gain, talde honetako hiru jokalarik kadete mailako Espainiako txapelketa eskuratu zuten urte hasieran Euskadiko selekzioarekin. Maddalen Cardenas, Irati Holgado eta Garazi Lizaso Galiziako Vigo hirian jokatu zen txapelketan Euskadirekin jokatzeko hautatuak izan ziren eta kadete mailako txapelketa eskuratu zuten finalean Nafarroako taldea 13-30 gaingitu ostean.

Bestalde, jubenil mailako mutilen taldeak Zumarragako Urola-Aspiraciones St. Lucia taldearen aurka jokatu du. Neurketa hau ere Oiardo kiroldegian jokatu du eta 2. postua mantentzeko

garaipena behar beharrezkoa dute herriko jokalariek. Bergara taldearekin 2. postu hori eskuratzeko lehia bizian dira momentu honetan. Usurbildarrek 2 puntu gehiago dituzte, baina Ereintza liderarren aurka eta bergararren aurka jokatu behar dute oraindik. Beraz, 6 puntu gutxiagoz 5. postuan dagoen Urolari irabaztea garrantzitsua izango da.

Usurbil Kirol Elkarteko beste bi eskubaloi taldeek, berriz, etxetik kanpoko norgehiagokak jokatu dituzte. 1. Territorial mailako taldeak Urola-Super BM taldea izango du aurrez aurre Zumarragan eta kadete mutilen taldeak, aldiz, Zarautzen jokatu du Euskalduna taberna ZKE taldearen aurka

JOSU ARANBERRI

Futbol 7ko taldeak Amaiera torneoan

Herriko Futbol 7ko taldeak denboraldiko bigarren zatia ekin zioten pasa den asteburuan. Irekiera torneo amaitu ostean Amaiera torneo jokatu dute ekaina bitartean. Denboraldi honetan 4 dira Futbol 7ko txapelketak jokatzen ari diren herriko taldeak eta Irekiera torneoan, behintzat, ez dute zorte handirik izan. Lehenengo mailan zegoen Jalgi Kafe Antzokiak sailkapeneko azken bigarren postua eskuratu maila bat beherago jokatu du Amaierako torneo.

Bigarren mailan zegoen Txotx- Aialde Berri taldeari ere antzeko zerbait gertatu zaiola. Bigarren mailatik hirugarrenera jaitsi da bere multzoan azken hirugarren postua eskuratu eta hemendik aurrera Hirugarren mailan jokatu du Olarrondo jatetxea eta Irrati taberna beste herriko taldeekin batera. Lehenengo taldeak 3. postuarekin konformatu behar izan zuen Irekiera torneoan eta bigarrenak, berriz, 11. postuan amaitu zuen lehen fase hori.



Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 8, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 9, ostirala
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Otsailak 10, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Otsailak 11, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 12, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 13, asteartea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 14, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 15, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 16, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 17, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Otsailak 18, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko goardiako farmaziak
www.noaua.com webgunean

Zubietta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubietta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubietta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubietta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubietta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubietta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubietta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da.
*: Eskola egunetan / Tf. 943 361740.

Gazte Ekimenekoen jaietako lehen bilera

Santixabel jaietarako bost hilabete baino gutxiago geratzen dira. Jaietan pentsatzen hasteko goizegi izan daitekeen arren, antolaketa lanetarako garaia ailegatu da. Hori dela eta, dagoeneko herriko jaiak prestatzen hasteko asmotan dira Gazte Ekimenekoak.

Ostiral honetarako, **otsailak 9**, jarri dute lehen bilerarako hitzordua; **iluntzeko 19:00etan Txaramunton**. Etumeta euskaltegiak egoitza duen

lokaletan, Zumarte musika eskola ondoan.

Gazte Ekimenetik, jaiak antolatze gogoz daudenei bertara agertze-ko dei egiten diete.

Iazko Santixabeletan lehen aldiz parte hartu zuen gazte taldeak. Artzabalgo gunean txozna zabalik izan zuten. Kontzertuak, bazkaria, jokoak... Ekitaldi ugari antolatu zituzten jaiak iraun zuten artean.

Aurtengoei aste honetan helduko diete.

Euskararen erabilera zenbaterainokoa den azalduko dute datorren astelehenean Sutegin

Euskarak kalean duen presentzia neurtzen 1989an hasi ziren. Geroztik, lau urtez behin errepikatu da euskararen kale erabileraren neurketa: 1993an, 1997an eta 2001ean. Aurtengoa, beraz, bostgarrenez egin da kale neurketa baina honakoan Soziolinguistika Klusterrak zuzendu du ikerketa eta udalaren dirulaguntza jaso du. Neurketaren ondorioz, Usurbilgo datu hauek izango ditugu eskura: euskararen kale erabileraren

indize orokorra, sexuaren araberako euskararen erabilera, adinaren presentziak duen eragina helduen euskararen erabileran eta hiztunen euskararekiko leialtasuna.

Neurketa horiek urriaren erdialdean egin ziren. Neurtutako ibilbideak, aldiz, hauexek: Lehenik, erdialdeko kaleak (Kale Nagusia, San Esteban kalea, Bizkarre, Zubiaurrenea, Gernika, Alperroburu, Barrenkalea, Irazu, Etxebeste eta Askatasuna plaza).

Bigarrenik, Olarriondo eta Galtzaragaina. Eta azkenik, Santuenea.

Neurketa horiek egiten Soziolinguistika Klusterreko adituek egin zituzten baina Udarregi Ikamolako ikasleak laguntza izan zuten.

Otsailak 12, astelehena.
18:30ean Sutegin, sarrera doan.
Hizlaria: Larraitz Garmendia.
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Agenda !

Otsailak 9, ostirala

-Gazte Ekimenak deitutako bilera. Gaia: Santixabelak 2007. 19:00etan Txaramuntoko lokaletan.

Otsailak 11, igandea

-Aitzagaren itxiera salatzeko batzarra eta manifestazioa.

-Pello Ramirez, 19:30ean Sutegin. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Otsailak 12, astelehena

Hitzaldia: "Euskararen kale erabileraren neurketaren emaitzak Usurbilen" 18:30ean, Sutegin.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Otsailak 17, larunbata

Inauteri Jaia. 11:00etan, umeentzako jokoak frontoian. 18:30ean, koadrilen elkartzea eta kalejira. 21:00etan afaria sagardotegian.

Literaturaren txokoa !

Balearen arrantzaren kronika

XVI. eta XXVII.

mendeetan euskal arrantzaleek Kanadako Ipar Atlantikoko uretan eginiko balearen arrantzaren kronika, gure itsas historiaren pasarterik kilikagarrienetako bat da. Hain zuzen ere, historia hori berreskuratu nahian, "Apaizac Obeto" espedizioa iazko ekainaren 5ean Pasaiaitik abiatu eta, sei astetan San Lorentzo ibaian nabigatu ondoren, Ternuako Red Bayeko badiara



iritsi zen. Espedizioaren xedea Kanadako arkeologoak ikertzen ari diren XVI. mendeko euskal balea eta bakailao arrantzaleen kokalekue-tara joatea izan zen. Horrezaz gain, espedizioak euskal baleazale eta bakailao arrantzaleekin harremanak zituzten indigenen tribuak ere bisi-tatu zituzten, berezko kulturak eta ahozko tradizioaren berri izateko.

Apaizac Obeto espedizioak, liburu honen bidez, Beothuk txalupara igo eta denboran eta geografian zehar bidaia egitera gonbidatu nahi du irakurlea.

Makil eta koplak festa ederra

Aspaldiko usadioari eutsiz jende asko atera zen kantuan aurreko igandean. Aurten, jai egunarekin egokitu denez, Udarregiko ikasleak ez dira kalejiran ibili. Usurbilen, Bota Punttubakoak eguerdi partean aritu

ziren kantuan. Santa Agedako koplak eta bertsoak tartekatu zituzten. Zubietan ere, makila eskuetan hartu eta santa eskean aritu zen koadrila handi bat. Zubietarrak, ordea, ohiturari jarraituz iluntze partean aritu

ziren kantuan.

Neguko ospakizunek jarraipena izango dute hilaren 17an. Inauteri Jaian murgiltzeko eguna izango da. Baina egun horretan, doinuak, beste-lakoak izango dira.



BOTA PUNTUBAKOAK EGUERDIAN HASI ZIREN SANTA AGEDAKO KOPLAK ABESTEN.



ZUBIETAN, ORDEA, ILUNTZE PARTEAN ATERA ZIREN KANTARI.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Industri eta iragarki

SERIGRAFIA

TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954

UGALDEA POL.36-2·USURBIL

ETXEBIZITZA

- Hiru gela dituen etxe konpartitu batean bi gela alokatzen dira. 635208551.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Emakume bat naiz eta hiru seme alaba ditut, urgentziaz etxe bat alokairuan bilatzen ari naiz Usurbilen edo inguruan. Ana, 661 267 503.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Ssanyong Musso todoterreno bat saltzen da. BC matrikuladuna eta beti garajena egondakoa. 943364310.
- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta

esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanean. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/617242660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610669335
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.

Lan-eskaintzak

- Astebukaeratan lan egiteko zerbitzari bat behar da. 943 36 67 10.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Alfonso XIII garaiko zilarrezko txanpon bat (duroa) galdu dut Kale Nagusian. Duen balore sentimental dela eta eskertuko nuke itzultzea topatu duenak. 943362725.

- Ume baten txaleku urdin bat bilatu dugu (plumiferoa) eta udaltzainetan utzi dugu. Galdu duenak han eska dezala.
- Ondo zaindiko duen norbaiti 3 urteko Setter Inglesa oparituko nioke. 645 735750.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garajean egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664774024.
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617242660 /apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Ianire!

Otsailaren 8an bost urte beteko dituzu. Oso ondo pasa eta muxuak etxekoen partez.



Zorionak!

Ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean eta besarkada bero bat zure etxekoen partez!



Zorionak Ione eta Ander!

Anderrek otsailaren 8an eta Ionek 14an egingo ditu urteak. Oso ondo pasa egun berezi horretan eta muxu haundi bat Koro eta denon partez.



Zorionak Goizane!

Otsailaren 11ean hamar urte beteko dituzu. Ondo pasa egun berezi honetan. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak Politta! Ehun metro eskas eta hain urruti. Esna amesteko aukerarik ere ez, Kamela, Salta eta merenge, ez ziok modurik. Baina lasai egon gauean han izango nauk belarriak gorri-gorri jarri eta muxu mordua emateko. Ba ez dakit ba ikaragarri maitte hautela, Oihana.



Zorionak potroso!

Hogei amarrak ere pasa dittuk, hau dek marka! Hala ere, hogeikin bezala hao. Ipurdiko bi eta besarkada amai-gabe bat, koadrila.



Santa Ageda bezpera degu Euskal Herriko eguna..., eta baita Mikelen urtebetetze eguna ere, aurtengoa bi urte! Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik maitia.



JAIOTAKOAK

Julen Orbegozo Pelaez, otsailaren 1ean.

Oharra: Hildakoen edo jaioberrien aipamena orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian: 943 360 321 (bulego orduetan).

TXOTX!!



Txotxetik sagardoa jarratu usadio!

AIALDE BERRI

Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa

Kaleazar Auzoa, 39 • **USURBIL** • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ 943 55 69 81



ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63



☎ 943 36 12 29

iruín
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com



Aginaga
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, **USURBIL**
Tel. era Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com

UDARREGI IKASTOLA



- 2 urtetik 16 urtera bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenaz arduratua.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologia: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertsogintza, dantza.



Matrikulatzeko epea
Martxoaren 31tik apirilaren 11ra



943 361 216

Udarregi Ikastola
Gernika ibilbidea. USURBIL
www.udarregi.com
www.udarregi.mundua.com